## Rock & Roll Hoochie koo –

Esku soinua nagusia da trikin,
zortziko aldiz egiten txistuekin,
bai ta zilar abotsak "Jotas navarras",
azkenik rock-ak ekarri du kitarra.

Ohidurazko kantua Xiberoan,
otxoteak dira aldiz Gipuzkoan,
abesbatza klasikoa Bizkaitarra,
azkenik rock-ak ekarri du kitarra.

Txatxanuga futz band heldu Zaramatik,
Sorotan Bele hazi Negu Gorritik,
Karlos Subijana txirulari Arabarra,
Barrikadak aldiz gogor joiten kitarra.

Rock & Roll Hoochie Koo,
rock bai blues onaren keinu,
Rock & Roll Hoochie Koo,
goza hor plazer baduzu,
zuk ere jarraik dezakezu,
goza hor plazer baduzu,
agur eta... mila muxu!!!



Hitzak : Niko ETXART - Musika : R. DERRINGER





## Gili gilikatzen haüt –

Ni jokoz kanpo
senditzen naiz hi bezala
mundu hau, mundu hau
ulertezin zaitadala.
Odol, nigar
eskuin ezker nagusitzen
hau kezka, bai nazka
nik behintzat ez diat onartzen.

Gili-gilikatzen haüt ene musikarekin
bai ta nik hor nahi deiat hunki bihotza.

Itxaropena
pena gutxiagorekin
oi! utopia eroaz
guk zendako ez amets egin.

Ametsak noski
ez dik ez harmen indarra
bainan hik eta nik (zuk ere prefosta!)
atxikiz barneko garra
lortuko lortuko
lortuko diagu zuzena.
Sinets, bai gogor sinets !!!

Hitzak eta Musika : Niko ETXART

# Toki Tokika

Hemen hemen, toki tokika
gure hizkuntza galdu egin da toki tokika
Nafarroan...

Erriberatik Baionara
euskaldunek dugu euskara
berreskuratzeko beharra
zabaltzeko lau haizetara.

Denak batera toki tokika
gura hizkuntza zaharra berpizten tokika
Nafarroan...

Inoiz baino gehiago oinez
gure euskara bermatzez
Nafarroan Nafarroa oinez
milaka lagunek alaitzez.

Inoiz baino gehiago oinez
inoiz baino gehiago...oinez !
Nafarroan...

Hitzak eta musika : Niko ETXART





# So bat

Oihaneko zuhaintzetan
txoriak oro hasten kantan
bihotz minak sendotzeko.

Zilarrezko odeietan
sartü gira ametsetan
so bat berriz so bat
eginez algarri
so bat berriz so bat
so bat maitagarri.

Oi! maitea, zaude beha
hain eztiki, ni esteki ...

Zilarrezko odeietan
sartü gira ametsetan
so bat berriz so bat
bata besteari
so bat berriz so bat
amodioari ... so.



Hitzak eta Musika : Niko ETXART

## Blues dei urdina –

Mikrofonoa sütan nahi nüke ezarri
Mikrofono hau sütan nahi nüke ezarri
Gaü beltz lüze huntan zütaz niz egarri...

Telegramen bidez edo telefonoz
Telegrama faxen bidez eta telefonoz
deitzen zütüt baby maitea egünoroz...

Ihardets, ihardets, ihardets, ihardets, maitea
ihardets, ihardets, ihardets nezazü maitea
desiratzen zütüt osoki maitea !!!

Mikrofono hau sütan sütan düt ezarri
Mikrofono hau sütan sütan düt ezarri
eraman dezala blues hau maiteari...



**Hitzak : Niko ETXART - Musika : Elmore JAMES**

## Zkrax?

Aspaldian ez niala gogo onez kantatü
kantatzea hitz okerra, nahiago düt oihüzkatü
lürra, ura, itsaso ziloak ...
zinezago ere ahal düt hots ! kasü belarriak.

Agur agur galaxia
galdü düka galdü bürüa
eni aldiz gaitz zaüt galtzea
Luis XVI naiz ni erregea.

Garmendi baten zilotik botza eten artino
satanekin oihüz ari gira baita zoinek gorago
hala nola sügarren ke gorrian...
ustez infernüan nintzala, iratzarri naiz ohean.

Agur agur garmendia
paradis ez balin bada "Olympia"
nahiago nikek loa ez galtzea
ez dü deus onik pentsatzea.

Arraultze baten küskian nihaur naiz baratü
nola egin ordüan galto et'arrapostü
ixtil, lapitz, benian üngurüan...
ene bürüarentako hasi nintzen koblakan.

Agur agur galaxia
paradis den edo ez den "Olympia"
agur agur garmendia
gaitz zaüt segür ez jakitea.

**Hitzak eta Musika : Niko ETXART**



## Hel otoi!

Umezürtz senditzen naiz
gizaldi hontan
noiz arte egonen naiz
trenpü txar hontan ?
noiz arte !

So-so-so-so-so, argizagiari so !
So-so-so-so-so, ilargiari so !
jin zaite otoi !

Amets bat nahi nüke
bete bizitzeko
hel otoi ! maitea
biak egoiteko

So-so-so-so-so, argizagiari so !
So-so-so-so-so, biak izateko !
argizagiari so !
ilargiari so !
argizagiari so !

**Hitzak eta Musika : Niko ETXART**

## Adixkide Maitagarria

(Raymond SAUMADE adiskideari)

Adiskide maitagarria
hintzan Raymond ene lagüna
gogoz argi, zintzo, fidela
jun haiz beste mündü batetara.
Hi hintzan ! bai hintzan... hi hintzan goxo goxoa
Hi hintzan ! bai hintzan... hi hintzan beti zinez goxoa.

Oi! hainbeste ibilaldi egin diagü algarreki
üngürüz üngürü, Euzkadi hik ezagütü dük eneki
Baztan, Sakana, Urola, Eibar
itsas hegia ta Xiberoa
Santurtzi, Gasteiz, Lizarra
hots ! gure ipar eta hegoa...

Gora altxatu duk beti gure hizkuntza zaharra
plazaz plaza ederki soinu sano ozenki
Mattin, Xalbador, Galtxetaburu, Ximinorak
Ramuntxo, Minxoriak
bai eta mila kantari...

Hitzak eta Musika : Niko ETXART





## itxaro, joseba

(Kometekin mintzatzeko)

Oi ! Itxaro zük lüma zorrotza
düzülakoz maite zütüt
jin zite Josebarekin
"light air tour" aipatzera.
Altzaiko txoko txokoko "hall" ate...
beti zabalik izanen dira
Altzaiko txoko txokoko "all"ate... ak
bai züek bezalako txori arraroentzat.
Mintza zite gisa batez
bai edo bestez zendako ez ?
hor nizate züen haidürü
kometekin mintzatzeko.

Oi ! Joseba hik lüma zorrotza
dialakoz maite haüt
jin hadi Itxarorekin
"ai ! Soul nos gènes" onddo biltzera,
Altzaiko txoko txokoko "hall" ate...
beti zabalik izanen dira
Altzaiko txoko txokoko "all" ate... ak
bai züek bezalako txori arraroentzat.
Mintza zite gisa batez
bai edo bestez zendako ez ?
hor nizate züen haidürü
kometekin, kometekin, kometekin hitz egiteko!!!

Hitzak : Niko ETXART - Musika : John MAYALL

# Too Young

Turn it on and turn it up it's time for fantasy
you don't need to know my name
juste call me destiny.

Well think about it once
gotta think about it twice
but don't go round thinking out loud,
you're worth the sacrifice.

Were, too young, too young,
too young to know.

It's no easy to make your point
when no one listens to you
it burns your lips like a hot joint
when you voice your point of view.

Thing about it once
Thing about it twice
but don't go round, getting your feelings
stored away in ice.

I look up to you'cause you're taller than me
but that don't mean to say
I believe that bit, that policy shit
cause I heard it yesterday.

Think about it once
thing about it twice
but don't go'round here thinking out loud
you're worth the sacrifice.

**Hitzak eta Musika : Dominic EARL**



# Skaï-ko Sofan

Larrugorri, biluzik
skaï-ko sofan, ez hotzik
hor muxukatzen, kartsuki
tinka tinkatzen girade basaki.

Txutxu Estitxu
har nezazu
zure besoetan.

Nekadura gozoa
txuku-txukun zoroa
ta izerditan bustirik
heltzen girade zerura poz-pozik.

Txutxu Estitxu
har nezazu
zure besoetan,
txutxu Estitxu
tink nezazu
zure besoetan.

**Hitzak eta Musika : Niko ETXART**

## Rhum-Ron Blues

Ez da ez lehen ez azken aldikoz,
karrikan nabila kordoka
ez! ez!
agian soberaxe hurbiltzen naiz
ron botilatik ta gainera basoka
kasik mokoka, bai !
otoi! otoi! otoi! otoi! Jainko ona
Allah - Vishnu - Dios - Good God !
lagunt ezazu zuk beti bai beti
mundu hontan gaizki dabilena.

Abil gizon gizon klik edan botila,
Abil gizon gizon klik edan botila...

Hola mintzo nintzan ene buruari...
normetatik kanpo
gizarte oker eta pasteurizatu
honi bardin ihes egiteko
hala ere, hala ere,
hala ere nik nahi nuke erran
ni bezala trakets ibilten direner,
otoi!, kotxerik ez gida
zer hel ere / badaezpadan !

**Hitzak eta Musika : Niko ETXART**






## Aupa Satan !

Aupa Satan, aupa Satan
Aupa Satan hik infernüan
berotzen naik, berotzen naik
dohainik eternitatean...

Beltzebuth, oi! Beltzebuth
Beltzebuth, nik gorpütza düt
txipi ta txüt, txipi ta txüt
oi! Beltzebuth ta zakilaxüt...

Luzifer, oi! Luzifer
Luzifer, ez haiz hain oker
hiri esker, hiri esker
gozatzen diat nik mila plazer...

**Hitzak : Niko ETXART - Musika : A. CURTIS**

## Hapa Hapa Taldea :

**Niko ETXART :**
Botza / Kitarrak (akustika eta elektrikoa) hüxtüa.
**Xabi HIRIART :** Tekiak / organoa / sintea.
**Dominic EARL :** Kitarrak (akustikoa, elektrikoa eta 12 sokakoa) botza / perkusioneak.
**Kiki GRACIET :**
Harmonika / botza / perkusioneak / kitarrapala ("Toki tokika").
**Dominika BARREIX :** Atabalak - Drums.
**Pantxoa HERRAN :** Kitarrapala - Bass.
**Marie-Hélène ESTEKAHANDI :** Botza ("So bat").
**Mixu MIXELENA :** Cowbell ("Toki tokika").